



Herriaren egoera aztertzen

Hasi da ikasturte politikoa Lasarte-Oria. Akordiotara iristeko prest daudela adierazi dute alderdi guztiek / 4

TXINTXARRI

Azken arraunkadak

Kontxako Banderan murgilduta daude Intza Fernandez eta Aiora Belartietza herritarrak / 10

Stock Azoka: udako denboraldiko produktuak prezio onean erosteko aukera, gaur eta bihar / 3

Realak Iberdrola Ligako denboraldi berria Valentziaren aurka hasiko du, igandean / 11



**Zu hemen zaude,
AEK ere bai**

MATRIKULAZIOA ZABALIK eman izena!

- Euskarako klaseak:
A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
- Aurrez aurreko eskolak.
- Autoikaskuntza.
- "On-line" aukera.

Munteri AEK euskaltegia
Geltoki kalea 17, behea, 20160 Lasarte-Oria • 943 37 28 63
• lasarte@aek.eus
www.munteri.blogspot.com.es



Urdaiaga auzoa, 11 - USURBIL
943 917 562

LORADENDA · EZKONTZA ETA EKITALDIAK · DEKORAZIOA





Aterpeko kideek asteazken eguerdian aurkeztu dute 'Leku Guztietan Kultura' egitasmoa. TXINTXARRI

Kultura sustatu eta herria dinamizatu

Uda giroari eutsiz, musika emanaldiak antolatu ditu Aterpea Merkatarien Elkarteak. Herriko auzo eta kaleak dinamizatzeko asmoarekin antolatu dute 'Leku Guztietan Kultura' ekimena, eta datorren ostiralean izango da lehen emanaldia

Txintxarri

Kultura sustatu eta Lasarte-Oriako kale eta auzoei bizia emateko asmoz antolatu du Aterpea Merkatarien Elkarteak

'Leku Guztietan Kultura' ekimena. Udako azken eguzki izpiak aprobetxatzeko, musika emanaldiak izango dira, leku ezberdinetan. Guztira hiru

kontzertu, herriko hiru leku ezberdinetan.

Datorren ostiralean Brez musika taldea arduratuko da arratsalde giroari musika

Xumela koruarekin kantuan aritzeko aukera, ikasturte berria hastearekin batera

Herriko koruak hilabete erdialdean hasiko ditu entseguak eta herritarrak animatu nahi ditu taldera batu eta umore onean kantuan aritzera

Txintxarri

Irailaren 16an, astelehenean, ekingo diote ikasturte berriari Xumela koruko lagunek. Egun horretan izango da lehen hitzordua, eta hortik aurrera, astelehenero bilduko dira Oriarte Institutuko Landaberri eraikinean. Iluntzeko 19:30ean hasiko dira entseguak eta ordubeteko iraupena izango dute.

Giro atseginean, lagunartean, kantuan aritzeko gogoia duten herritarrei deia luzatu die, koruan parte hartzeri animatu daitezten.



Xumela korua, San Pedro Jaietako emanaldi batean. TXINTXARRI

Kultur Kale Zikloa

Kultur Kale Zikloarekin amaitzeko, hiru kontzertu izango dira iraila amaierara arte. Bihar, Zabaleta auzoan, Mikel Karton abeslari eta gitarra jotzaile donostiarrek emango du kontzertua, eta folk eta pop estilotako doinuez gozatu ahal izango dute bertaratzen diren ikusentzuleek.

Irailaren 21ean izango da bigarren kontzertua, Atsobakarren. Sara Mansillak folk eta soul doinuekin girotuko du iluntzea, eta berak sortutako abestien bilduma ezagutzeko aukera izango da.

Alitruta taldearen kontzertua izango da aurtengo ekimeneko azkena. Irailaren 28an, Okendo plazan izango da emanaldia, eta hainbat estilotako doinuak entzun ahal izango dira. Iluntzeko 20:00etan izango dira emanaldi guztiak.



Sei emanaldi izan dira guztira aurtengo ekimenean. TXINTXARRI

jartzeaz. Askotariko estilotako doinuak joko dituzte, Andapa kalean.

Bigarren emanaldia, aldiz, hilaren 21an izango da. Dupla taldearen txanda izango da, eta, hauek, hip hop, kaleko musika, pop eta elektronika nahasketa eskainiko dituzte. Ama Brigidatarren komentu aurreko plazan izango da emanaldia.

Bossa Nova, jazz eta funk doinuak ekarriko ditu Bossa Quartet taldeak, irailaren 27an, Jaizkibel plazara. Emanaldi guztiak 19:00etan hasi eta ordubete iraungo dute.

Bestalde, sentsibilizazio kanpaina bat jarriko du martxan Aterpeak, eta herriko komertzioei deia luzatu die, datorren asteazkenean tren geltoki aurrera gerturatu daitezten.

Gaugau estudioan eskulanetan aritzeko aukera, urtarrilean

Meta kanpainaren barruan, Lasarte-Oriako estudioan sorkuntzan eta artean jarduteko ikastaroak egingo dira

Txintxarri

Kultur ekintzak sustatzen dituzten elkarte eta erakundeak babesteko helburua du Meta kanpainak. Guztira, Gipuzkoako 15 proiektu barne hartzen ditu, eta horien artean dago Lasarte-Oriako Gaugu studioa.

Arte eta sorkuntza eta eskulantzintza lantzeko tailerra da Zumaburuko, eta serigrafia teknika ezberdinekin, kamisetak, katiluak, telazko poltsak eta beste hainbat euskarri apaintzen ikasteko aukera eskainiko du.

Interesatuentzat, gainera, ez dute kostu ekonomikorik izango ikastaroek; dirua biltzeko *crowdfunding* kanpaina bat abiatuko dute *Goteo.org* web orrialdean; irailaren 19an hasiko da, eta bi hilabetetan lortutako diruarekin finantzatuko dira. Guztira, 500 ikastaro ordu finantzatzeko helburua dute, eta behin prozesu hori amaituta, urtarrilean ekingo diete ikastaroak.

Adin guztietako jendeari zuzenduta daude ikastaroak, eta bertan parte hartzeko deia luzatu dute.

Eskaintza bereziak gaur eta bihar, Stock Azokan

Udaberriko eta udako produktuak saltzeko asmoz, deskontuak eskainiko dituzte herriko bederatzi komertzio: Aterpea Merkatari eta Ostalarien elkarteak antolatutako Stock Azokan parte hartuko dute. Karpa bat jarriko dute euren denden kanpoaldean

Txintxarri

Armairuak bete, sakelak hustu gabe. Stock Azoka antolatu du Aterpea Merkatariaren eta Ostalarien elkarteak aurten ere, Lasarte-Oriako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Herriko bederatzi komertzio parte hartuko dute: Alba Modak, Mabel Modak, Olmi Mertzeriak, Leder Oinetakoak, Iturbe Oinetakoak, Electricidad Arreguik, Artesania Ines Floresek, Imagine jantzi dendak eta Dulce Tentacion gozoki dendak.

Gaur eta bihar eskainiko dituzte udaberriko eta udako produktuak bederatzi komertzio



Aterpea elkarteko kideak eta udal ordezkariak, aurkezpen prentsaurrekoan. TXINTXARRI

horiek. Karpa bana jarriko dute euren denden kanpoaldean, bezeroen arreta deitzeko. Udalak utziko dizkie. Hainbat urte daramatzate elkarlanean, ekitaldi hori antolatzen.

Denboraldi berria, ate joka

Udazkeneko eta neguko jantzi, etxetresna elektronikoko eta beste hamaika produktu gertu dituzte dendek. "Helburua da bukatu berri den denboraldiko salgaiak herriarren eskura jartzea, eskaintza erakargarriak eginez", nabarmendu du Aterpea elkarteko lehendakari Ramon Ormazabalek. "Dendariak prest dute udazkeneko eta neguko materiala, baina apalak eta kaxak hustu behar dituzte lehenago".

Stock Azokako parte-hartzaileek erabakiko dute gaur eta bihar egingo dituzten eskaintzak eta deskontuak zenbaterainokoak izango diren. "Dendek euren ohiko ordutegietan irekiko dituzte ateak bi egun horietan", azpimarratu du Ormazabalek. Aurkezpen prentsaurrekoa baliatu du lehendakari udalari eta Eusko Jaurlaritzari eskerrak emateko: "Lagunduko ez baligute

ez genuke ekitaldi hau antolatzerik izango".

Nuria Fernandez Sozioekonomia zinegotzia ere gerturatu da Imagine jantzi dendara. Bertan aurkeztu dute Stock Azokaren aurtengo edizioa. Bederatzi komertzioei eskerrak eman dizkie egitasmo horretan parte hartzeagatik, eta nabarmendu Aterpea Merkatariaren eta Ostalarien elkarteak herriko merkataritza sustatzearen alde egiten duen lana.

Lehenengo edizioa, 2008an

Duela 11 urte antolatu zuen Aterpeak Stock Azokaren aurreneko edizioa. Michelingo tenis pistetan jarri zituzten postuak herriko 22 dendek. Oso arrakastatsua izan zen ekimena. Orduz geroztik, herriko dendariak ekitaldi horren bitartez saldu izan dituzte soberakinak.

Lehenengo edizioak arrakastatsua izanik ere, antolatzaileek erabaki zuten beste toki batean egitea Stock Azoka. Loidibarren pilotalekua aukeratu zuten, Lasarte-Oriako erdigunetik "gertuago" zegoelako. Orduz geroztik parte hartzen duten dendetan egiten dute.

Parte-hartzaileak

IMAGINE jantzi denda

ARREGUI elektrizitatea

INÉS Flores artisautza

DULCE TENTACIÓN

ITURBE zapata denda

LEDER zapata denda

OLMI mertzeria

MABEL Moda

ALBA Moda

Dendetan bertan



2019
LASARTE-ORIA

STOCK

Azoka

Irailak 6 eta 7

Ostirala eta Larunbata



Ikuspuntu desberdinak, helburu berbera

Hasi da Lasarte-Oriako ikasturte politikoa. Udalerriaren egoerari buruz eztabaidatu dute korporazioko kideek, ezohiko saioan. Parte-hartzea, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, kiroldegi berria eta 2020ko aurrekontuak izan dituzte hizpide, besteak beste

Iñigo Gonzalez Sarobe

Jesus Zaballos alkateak egin zuen analogia: "Herrigintza tren bat bezalakoa da: aldatu daitezke bidaiariak legealdi batetik bestera, gidaria ere bai agian, baina trenak martxan jarraitzen du beti". 2019-2020 ikasturtekoa abiatu da honezkerok. Aurreneko geltokia, Lasarte-Oriaren egoera zein den aztertzea. Ezohiko saioa egin zuten atzo, eta hainbat gairi buruz hitz egin. Korporazioko hamazazpi kideetatik hamabost egon ziren, Estitxu Alkorta (EAJ) eta Tania Rodriguez (Elkarrekin Podemos) izan ezik.

Ideologia eta kolore desberdinetako alderdiak izanik, ez da harrizkoa herria ikusteko eta ulertzeko ikuspuntuak desberdinak izatea. Guztiek dute helburu berbera, ordea: Lasarte-Oria hobetzea. Akordiotara iristeko prest daudela nabarmendu zuten guztiek atzo goizean. 2020ko aurrekontuena izan daiteke borondate on horren adibide bat. Alkateak iragarri zuenez, zirriborroa idazten hasi aurretik formazio politiko guztiekin eseri nahi du mahaian.

Ordenantza fiskalak ere labean daude. "Ez da egongo ezusteko handirik: KPIa bezainbeste igoko dira zergak datorren urtean", adierazi zuen Zaballosek.



Lasarte-Oriaren egoerari buruz eztabaidatu zuen udal korporazioak, atzo. TXINTXARRI

Aldaketa gehiago. Udalak kultur arloan dabilzan elkarteekin sinatzen dituen diru-laguntza hitzarmenek legealdiak beste iraungo dute: lau urte. Auzo aholkularitza batzorde bat ere sortuko dute, herritarren kekek eta proposamenak jasotzeko.

Parte-hartzea nola sustatu

Parte-hartzea izan zen mahai gainera gehien irten zen gaietako bat. Elkarrekin Podemoseko bozeramaile David Ares: "Kontua ez da ahalik eta prozesu gehien abiatzea, egiten direnak eraginkorrak izatea baizik". Estitxu Garmendiak (EH Bildu)

honako gogoeta egin zuen: Udalaren politika egiteko modua urrun dago herritarrengandik". Bi alderdi horiek galdetu zuten ea zenbateraino den parte-hartzailea udalerriaren egoerari buruzko plenoa astegunez eta goizez egitea.

Zaballosen hitzetan, ez da erraza beti modu aproposan iristea herritarrengana. "Ez dago parte-hartze eredu ideal bat; kasuaren arabera bilatu behar da modu onena". Adierazi zuen eraginkorragoa dela udala hurbiltzea herritarrengana, alderantziz baino. Pasa den ikasturtean egindako ekimena

jarri zuen adibidetzat: auzoz auzoko bulegoa. EH Bilduko Jon Martinen iritziz, ordea, parte-hartzeari "garrantzia handiagoa" eman behar dio udal gobernuak.

Kiroldegi berria eta Atsobakar

Kiroldegi berria eraikitzea da legealdi honetako "erronka handienetako bat", Zaballosen aburuz. Esan zuen urte bukaeran erabakiko dutela zeinek egingo duen proiektua. Bost aurkeztu dituzte guztira. Udalak Atsobakarren egin nahi duen kirol gunea (futbol zelaia eta atletismo pista) horri oso lotuta doa. Usurbilgo udalarekin oraindik ados jarri ez denez, alkateak adierazi du "epaitegiatara" joko duela. "Ez gaude ados guk aurkeztutako txostena zuzentzen ari diren moduarekin".

Elkarrekin Podemosek uste du "denbora gehiegi" pasa duela udal gobernuak Usurbilekin ika-mikan. "Ez al da posible beraiekin ados jartzea?", galdetu zuen Ares. Egitasmo horren funtsari buruz jardun zen EH Bilduko bozeramaile Jon Martin: "Herritarrentzat onuragarriena den proiektua izatea lehenetsi beharko luke udal gobernuak, ez Atsobakarren kirol gunea bai ala bai egitea".

Hiri antolamendurako plana

Udalaren beste eginbeharretako bat da Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, orain arte indarrean egon diren arau subsidiarioak ordezkaturiko dituen. "Ez dugu moldaketarik egingo: ez ditugu metro karratu gehiago gehituko eraikigarria den lurrari", esan zuen alkateak.

EH Bilduk uste du "lanabes egokia" izan daitekeela plan hori, eraikita edo eraikitzen hasiko diren zenbait azpiegituren

ondorioak saihesteko, Uxue Loinaz zinegotziak azpimarratu zuenez. "Erraustegiak, makro kartzelak edota merkatalgune handiek arriskuan jar dezakete Lasarte-Oriaren izaera". Elkarrekin Podemosen iritziz, plan horrek herritarren beharrezan jaso beharko litzuke. "Ongi definitu eta zehaztu behar dugu zer motatako hirigintza eredu nahi dugun herrian".

Euskarak ere izan zuen tarterik atzoko saioan. Alkateak aipatu zuen Ttakun KErekin hitzarmena berrituko dutela, hizkuntza hori sustatzen jarrai dezan. Udako Txokoei buruz, esan zuen udal gobernuak erabaki egin behar duela enpresa kudeatzailearekin duen kontratua berritu edo ez.

"Akordioak egiteko garaia da"

Atzoko plenoan Jon Antxordoki bozeramaileak esandakoei buruzko prentsa-oharra bidali zien hedabideei EAJk. Beste alderdien jarrera bera daukate jeltzaleek: "Alderdi desberdinekin akordioak egiteko garaia da; erabaki horiek gure herriaren geroa markatuko dute".

Dena den, Antxordokik uste du zenbait gai beste era batera landu ahal direla. Esate baterako, TSS-Tren eraikinaren kudeaketa. "Pena da azpiegitura hori eraitsi izana; herriko kultur eragileentzat oso espazio aproposa izango zela uste dugu". Urnieta bideko "arazoa" konpontzearen alde egin du alderdi jeltzaleak, eta Tratu On Bat markari "buelta bat" ematearen alde.

Hiri erdialdean mugikortasuna "berritu" egin behar dela adierazi zuen Antxordokik. "Autobus zerbitzuak areagotu izana uztartu behar dugu txirringekin eta 30 guneekin".

Etorkizun jasangarri baten aldeko giza katea

Igandean, irailak 8, 11:30ean, antolatu da ekitaldia Kontxako hondartzan. Hainbat gizarte eragileren babesa du

Txintxarri DONOSTIA

Aurreko urteetan bezala, Errausketaren Aurkako Mugimenduak erraustegiaren aurkako giza katerako deialdia egin du. Aurtengoan egoera berria da, erraustegia eraikia dago-eta.

Horrek, ordea, ez du mugimenduaren aldarrikapena aldatuko eta erraustegia gelditzeko ahalegin guztiak egingo ditu.

Mugimenduak azaldutakoaren arabera, 2018an Gipuzkoan sortutako errefus erraustegiak

erre dezakenaren erdia izan da, gutxi gorabehera, eta gutxitzeko joerarekin jarraitzen du urtez urte, Donostian ezik. "Donostiak bakarrik erraustegiak behar duen erregaiaren zati handiena sortzen du eta beste herrien bidea jarraituz gero, erretzeko zabor eskasia larria izango litzateke". Horregatik, Donostiako udalaren jarrera salatu dute.

Horrez gain, erraustegia Gipuzkoako enpresa kutsagarriena izango dela argitara eman dute. "Erraustegian erretako zabor kilo



Giza Katearen aurkezpeneko irudia. EAP

bakoitzeko gutxi gora behera kilo bat CO2 sortuko da, eta erraustegiak urtean isuriko dituen nitrogeno oxido kantitatea 150.000 turismo dieselek bakoitzak 10.000 km. eginez aireratutakoen parekoa izango da. Gogoratu hauek direla, metanoarekin batera, gure planeta galbidera daramaten gas kaltegarrienak".

Hori dela eta, agintariei negozioren bidea alde batera utzi, ohiturak aldatzeko ekimenak sustatu eta etorkizun jasangarri baten alde egitea eskatu die mugimenduak.

Adineko pertsonak omentzeko ekintza ugari

Urriaren 1etik 8ra, adineko pertsonen omenezko astea antolatu dute. Lehiaketak, erakustaldiak, kirolak, musika...ez dute aspertzeko astirik izango. Urriaren 6ko bazkarirako izen-ematea irailaren 11tik 27ra egingo da, egoitzan, arratsaldeetan

Txintxarri

Biyak Bat elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak 2019 urteko adinekoen pertsonen omenaldi astearen berri eman dute.

Biyak Bat elkarteko bandera igotzearekin emango zaio hasiera asteari. Lasarte-Oriako pertsona adinduek ia egunero izango dute zerekin gozatu.

Urriaren 6a, igandea omenaldi asteke egun nagusia izango da eta, ohi bezala, bazkaria egingo da, Michelin kirol guneko pilotalekuan eta hainbat oroigarri banatuko dira.

Ekintza horretan parte hartzeko izen-emateak berrikuntza bat dakar: irailaren 11tik 27ko arratsaldeetan egingo da, 15:00etatik 17:00etara.

Bazkariko mahaikideek bi baldintza bete behar dituzte: Lasarte-Orian erroldatua egon



Bingoa, pote, toka eta igel txapelketek irekiko dute Adinekoen Omenaldi astea. TXINTXARRI

eta 1954. urtean edo lehenago jaiok izatea. Salbuespen izango dira izena ematen duten pertsonen bikotekideak. Gazteagoak badira ere parte hartu ahalko dute, baina herrian erroldatuak ez badaude 29,70 euro ordaindu beharko dituzte.

Gainerako txapelketetako inskripzioak astelehenean, irailaren 9an irekiko dira elkarteko bulegoan. Orokorrean ekimenak doakoak dira. Ibilaldi neurtuaren kasuan, 2,5 euro ordaindu beharko dira aurreko urteko kamisetarik izan ezean.



TXINTXARRI

Itsasontzi berria Atsobakarren

Atsobakarreko auzoak haur-parke berritua du. Abuztu hasieran Montaje Garra S.L. enpresak instalatu zuen itsasontzi berria eta geroztik, auzo eta herriko haurrek ederki gozatu dute. Era honetara, Herritarren Bulego mugikorreko eskaerei erantzun dio udalak, izan ere, egoera txarrean zegoen aurreko parkea. Haur-parke berriaren aurrekontua 58.397 eurokoa da.

Zeremonia Zibilei buruzko ekarpenak jasotzen ari da udala

Zeremonia zibilak egiteko araudia landuko du Lasarte-Oriako Udalak. Horretan udal eraikuntzetan egin ahalko diren familia harrera, ezkontza zibil eta hiletza zibilak arautuko dira.

Hori egin aurretik, herritarren proposamenak jasotzeko epea ireki du udalak. Iradokizunak hiru bidetatik egin ahalko dira, irailaren 13a baino lehen: udaleko erregistroan idatzi bat aurkeztu; partehartzea@lasarte-oria.eus helbide elektronikora mezua bidali edo udaleko webguneko partehartzea atalean dagoen formularioa bete.

Prozesu honen informazioa udaleko webgunean dago eskuragarri.

Auzo-elkarteak laguntzeko araudia, hasierako fasean

Udalak auzo-elkarteei dirulaguntzak emateko oinarri arautzailea sortu nahi du. Lasarte-Oriako udalerrian finkatutako eta Elkartearen Udaleko Erregistroan dauden auzo-elkarteak izango dira onuradunak. Laguntzen bitartez, herritarren parte-hartzea sustatzeko jarduerak antolatu ahalko dituzte.

Araudia landu eta onetsi baino lehen, herritarren ekarpenak jasoko ditu, irailaren 19a arte. Udaleko erregistroan, partehartzea@lasarte-oria.eus helbidean edo udaleko webguneko partehartzea atalean dagoen formularioan jasoko dira proposamenak.

Adinekoen omenaldi astea 2019

Urriaren 1a, asteartea

16:00etan, bandera igotzea trikitixa doinuez lagunduta, Biyak Bat egoitza.

16:30ean, toka, pote eta igel txapelketak, Isla plaza.

18:30ean, bingoa, Biyak Bat egoitza.

20:00etan, sari banaketa, Biyak Bat egoitza.

Urriaren 2a, asteazkena

11:00etan, gimnasia erakustaldia, Maialen Chourraut kiroldegia.

19:00etan, Virginia Imazek *Sex o no sex* bakarrizketa eskainiko du, Manuel Lekuona kultur etxea.

Urriaren 4a, ostirala

11:00etan, *Ondo ibili* ibilaldia herritik zehar.

12:00etan, luntxa, Biyak Bat egoitza.

17:00etan, lerroko dantzen erakustaldia, Okendo plaza.

19:00etan, Duo Imperial taldearen kontzertua, Manuel Lekuona kultur etxea.

Urriaren 5a, larunbata

9:30ean, ibilaldi neurtua, Okendo plaza.

18:30ean, Biyak Bat elkarteko eta Eibarko Unzaga abesbatzen emanaldia, Ama Brigitarren komentua.

20:30ean, afaria, Abend jatetxea.

Urriaren 6a, igandea

11:00etan, meza, San Pedro eliza.

11:45ean, kalejira trikitixak lagunduta Manuel Lekuona kultur etxera.

12:30ean, ekitaldia, Manuel Lekuona kultur etxea. Biyak Bat elkarteko abesbatza eta

Amaia Gonzalez Caballero izango dira oholtzan.

14:00etan, bazkaria, Michelin kirol guneko pilotalekua.

16:30ean, dantzaldia Azabache taldearekin, Michelin kirol guneko pilotalekua.

Urriaren 8a, asteartea

Urrezko ezteien eguna
10:40ean, kalejira trikitixak lagunduta Ama Brigitarren komentura.

11:00etan, meza Biyak Bat elkarteko abesbatzak lagunduta, Ama Brigitarren komentua.

12:00etan, luntxa, Biyak Bat egoitza.

12:30ean, opari banaketa, Biyak Bat egoitza.

14:30ean, bazkaria, Abend jatetxea.

Ostean, dantzaldia, Abend jatetxea.

Eskola materiala erosteko laguntzen eskaera epea ireki da

Urriaren 1era arte, 2019-2020 ikasturterako eskolako materiala erosteko laguntzak eskatu ahalko dira Lasarte-Oriako Udalean. Ekimena 40.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten familiei zuzendua dago. Aurten Batxilergo eta Lanbide heziketako Erdi Mailako ikasleen materiala ere diruz lagunduko da. Herriko dendetan erosita izan behar du materialak.

Gizatzen enpresa arduratuko da 'KonTent-Tu' ekimenaz

Adineko pertsona autonomoei edo mendekotasun handirik ez dutenei arreta emateko zerbitzua KonTent-Tu Gizatzen enpresari esleitu dio udalak. Enpresaren eskaintzak 53.610 euroko zenbatekoa du urteko eta oinarritzko zerbitzuaren osagarri gisa hainbat hobekuntza proposatu ditu, hala nola erabiltzaileen familiarreko eta/edo zaintzaileekin 18 orduko prestakuntza egitea.

PLAZAN BAZAN

BiKoizketa

Pertsonaiak albo batera utzita, badira gutxienez 9 elementu bi irudietan ageri direnak. Ikusten al dituzu?



Bi KoloPe

Bi sudokuok kolore bana dute oinarri eta osatu egin behar dituzu. Lehendabizikoan, URDINA hitza osatzen duten hizkiak erabili behar dituzu (U, R, D, I, N eta A). Bigarrengoan, berriz, BELTZA hitza osatzen duten hizkiak erabiliko dituzu.

Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



U			NR
	A		
I			D
	R	N	
		R	U
NA		D	I

	T	L	E	Z	A
			T		
T		E			Z
Z			L		E
		T	B		
	E	B	Z	A	

5 X 5 X 5

Erreparatu ongi, berdinak diruditen bi irudi hauei. Ezkerretik eskuinera, bost elementu agertu dira, eta beste bost desagertu. Halaber, bost elementu aldatu dira. Aurki itzazu.



Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2019-20



ONDO iBiLi!

BEKA
matrikularen
arte %85a

AGENTZIAK

Bidaia ezazu zuzenean herriko agentzia batekin, ziurtasun osoz.

ABIAPUNTUA

Zu zeu eta zure errealitate linguistikoa.

IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatetakoak.
 - Maila guztiak.
 - Ordutegi zabala.
 - Txandaka aritzeko aukera...
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Bekokale bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.eus
- Matrikulatzeko epea: irailaren 2tik 18ra

Munteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@ae.eus
- Matrikulatzeko epea: irailaren 2tik 27ra

GELDIALDIAK

- Haurrarekin hitz egitea...
- Gauza laburrak idaztea...
- Titulu bat eskuratzea: B1, B2, C1, C2
- Lagunekin, lankideekin, familiakoekin euskaraz aritzea...
- Euskarazko kultura, esperientziak, jarduerak hobeto ulertzea, parte hartzea, parte izatea...

HELMUGA

Zeuk aukeratzen duzuna.

ONDO iBiLi!

Abia zaitez amesten duzun txokorantz

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egin izatea:
 - 1- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez % 85eko asistentzia eta gutxienezko aprobetxamendua gaitzuta.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus



Bidaia
asegurua
barne



Ikasturte berriarekin batera izan ohi da promesak egiteko garaia. Hizkuntzak ikasi, kirola egin, antzerkian edo dantzan hasi... Horietan denetan, bada apustu segurua den hautua: norberaren hizkuntza propioa hobetzea. Buruntzaldea eskualdeko euskaltegiak eskaintza zabala dute 2019-2020 ikasturterako, ordutegi eta maila guztiekin. Bada, gainera, beste abantaila bat. Eskualdeko udalen helburua matrikulazioak bultzatzea da, eta, horretarako, diru laguntza sortak eskaintzen dituzte. Laguntza horiek HABEk ematen duenarekin bateragarriak dira. Horrenbestez, Buruntzaldeko herritarrei ia doan, eta kasu askotan, doan atera dakieke ikastaroa; apustu segurua da euskara ikastea.

Ikasturtea hastera doa. Iaz, 2017-2018koan, 924 ikasle aritu ziren euskaraz ikasten Buruntzaldeko euskaltegiren batean. Gehienak, emakumeak: %67,9. Eskualdeko Euskara Zerbitzuen helburua da ikasle gehiago izatea; 1.000 ikasleetara iristea dute buruan.

Oraindik 2018-2019 ikasturteko datuak itxi gabe dituzte, eta, beraz, irail amaiera arte ezingo dira matrikulazioen behin betiko kopuruak jakin. Edonola ere, orain arte bildutakoak erreparatuta, baikor agertu dira eskualdeko euskara teknikariak. Udarako ikastaroen datuen faltan, matrikulazio gutxi batzuk behar dira muga hori gainditzeko.

Zortzi euskaltegi daude guztira eskualdean. Bina Lasarte-Orian eta Hernanin, eta bana Urnietan, Hernanin, Andoainen eta Usurbilen.

Eskualde osoko eskaintza aintzat hartuta, non aukeratua badago. Astelehenetik ostiralera, zortzi euskaltegi horietan bakoitzaren beharren arabera ikastaroak ematen dituzte. Hasteko, maila aldetik; A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 egiteko aukera dago. Baita ordutegi aldetik ere; eskolak goizetan, eguerditan eta arratsaldetan, iluntzera arte daude. Nork bere kabuz autoikaskuntzan ikasteko abagunea ere badu. Tutoretzak, programazio pertsonalizatuak eta mintza-saioak eskaintzen ditu ikastaro mota horrek.

Eskolez gain, beste alderdi praktikoagoa ere eskaintzen dute euskaltegiak: Mintzalaguna egitasmoaren bidez, astean behin



Euskaltegiatiko ikasleak, apunte artean, ikasturte amaierako azterketarako prestatzen. BURUNTZALDEKO UDALAK

Euskara hobetu, aukera baliatu

Buruntzaldeko udalek euskaltegiatiko matrikulak ordaintzeko diru laguntzak ematen dituzte, euskara ikastea bultzatzeko. Ikasleari ia doakoa, edo kasu askotan, doan atera dakieke ikastaroa. Gainera, eskaintza zabala dago eskualdean: zortzi euskaltegi daude

5-6 pertsonako taldeekin biltzeko aukera dago, euskaraz aritzeko. Beste ekintza osagarriak ere eskaintzen dituzte euskaltegiak, hala nola, irteerak, txangoak...

Udalen laguntza

Buruntzaldeko udalek ematen dituzte diru laguntzak euskara ikasteagatik. Halere, herri bakoitzean laguntza horiek jasotzeko baldintzak eta diruz lagundutako kopuruak desberdinak dira. Baina badira ezaugarri komun batzuk. Esaterako, gutxieneko asistentzia bete behar da, eta errolatuta egon behar da herrian bertan. Langabetuei are laguntza handiagoak ematen dizkiete; %100 kasu batzuetan, 500, 600 edo 664 euro arteko mugapean, aldeak baitaude herri batzuetatik besteetara.

Horrez gainera, HABE Helduen A l f a b e t a t z e e t a Berreuskalduntzerako Erakundeak ere laguntzak ematen ditu. Ondokoak dira baldintzak: batetik, 2018ko martxoaren 23tik 2019ko abuztuaren 31ra bitarteko epealdian euskaltegi edo euskararen zentro homologatu batean matrikulatuta egon beharko da; bestetik, 2018-2019 ikasturtean HABEren maila bat edo baliokideren bat egiaztatu beharko da. Diru laguntza horiek egiteko eskabidea 2019ko irailetik aurrera egin daiteke.

"EZ ZITZ AidAN BIDEZKOA IRUDITZEN NIRE HIZKUNTZA MENPERATU GABE BESTE BAT IKASTEAN"

Hain zuzen, diru laguntzek erakarrira ematen dute izena ikasle batzuek. Askotariko arrazoiak dituzte euskara ikasteko. Batzuek lana dela-eta titulu ofizialen bat atera nahi dute. Pili Meiraren kasua da. Astean 7 ordu eta erdi ematen ditu, arratsaldetan. "Goizetan lan egiten dut, gero ume txikiekin nabil, baina denbora ateratzen dut. Merezidu ahaleginak".

Autoestimak gora

Jonek, ordea, ez du titulurik behar. "Aspaldi euskara landu gabe nuen, eta konturatu naiz asko dakidala. Autoestimua asko indartu dit euskaltegiak. Ingelesa nahi nuen ikasi, baina ez zitzaidan bidezkoa iruditzen norberaren hizkuntza menperatu gabe beste bat ikasten hastea".

Buruntzaldeko udalen diru laguntzak

Andoain

- **Baldintzak:** Andoainen errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.
- **Diru laguntza:** Matrikularen %85 guztiei; familia ugariak edo diru sarrera murriztuak dutenei, %100. Autoikaskuntza, %100. 664ko muga.

Astigarraga

- **Baldintzak:** Astigarragan errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.
- **Diru laguntza:** Kasu guztietan 600 euroko muga izango du laguntzak. Matrikularen %75. Langabetuei, merkatariei eta 12 urtetik beherako haurren bat dutenei: %100.

Hernani

- **Baldintzak:** Hernanin errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.
- **Diru laguntza:** Matrikularen %70. Langabeei, %90. 500 euroko muga.

Lasarte-Oria

- **Baldintzak:** Lasarte-Orian errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.
- **Diru laguntza:** Matrikularen %85.

Urnietan

- **Baldintzak:** Urnietan errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %80.
- **Diru laguntza:** Langabeei, %100. Besteei, %85. 500 euroko muga.

Usurbil

- **Baldintzak:** Errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %80.
- **Diru laguntza:** Guztiei, matrikularen %100. 600 euroko muga.

Buruntzaldeko udalek %70 - %100 artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!



Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani




Astigarraga



**Eus
ka
ra
ikasiz**

Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili



buruntzaldea.eus

Jo gogoko duzun euskaltegia eta izena eman!

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Plazaola, 2.
andoain@aek.eus
943 591 704

LASARTE-ORIA

Munteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea 17 Behea
943 372 863
lasarte@aek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi 11
943 557 801
607592864
Zilegi eskola: 663043314

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltegia
Kale Nagusia 43, Behea
607 609 379
usurbil@aek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia 48.
eta Nabarra Oñatz 3
607610687

**Lasarte-Oriako Udal
Euskaltegia**

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren
gainean)
943 36 16 21
euskaltegia@lasarte-oria.eus

**Hernaniko Udal
Euskaltegia**
Karobieta 63
(anbulatorio zaharra)
euskaltegi@hernani.net
943 331 896

URNIETA

Urnietako AEK
Euskaltegia
Errekalde kalea, 1



Aiora Belartietia, eskuinetik hasita bigarrena, Arraun Lagunak taldeko arraunlaria da. EUSKOTREN LIGA



Intza Fernandezek Hondarribia Bertako Igogailuak taldean ari da arraunean. IÑAKI SUAREZ

Denboraldia amaitzeko azken arraunaldia

Arraun denboraldiko azken saioak deliberatuko du Kontxako Banderaren garailea. Igandean jokatu da norgehiagoka nagusia, eta bertan lehiatuko dira Intza Fernandez eta Aiora Belartietia herritarren eskifaiak: Hondarribia Bertako Igogailuak eta Arraun Lagunak

Txintxarri

Uda bukatzearekin batera, arraun denboraldia ere amaierara iritsiko da igande honetan. Hilabeteetako lehiak bukatzeko asteburuko erlojupekoa besterik ez da geratzen. Ez da nolana hiko froga gainera, urteko hitzordu garrantzitsuenetakoa jokatu dute arraunlariak: Kontxako Bandera. Pasa den igandean neurtu zituzten indarrak lehen txandan, eta bandera eskuratzeko saioa izango da igande honetakoa.

Beste hainbat arraunlariaren artean, herriko kirolariak ere lehiatu dira Kontxako Badian; Intza Fernandez eta Aiora Belartietia. Hondarribian ari da Fernandez eta Arraun Lagunak elkartean, berriz, Belartietia. Azken honek harrobitik eman du saltoa (estreinakoz aritu da Lugañene traineruan), eta Kontxako Banderako lehen

jardunaldian parte hartu ez badu ere, taldeak egindako lanarekin "oso pozik" agertu da.

Oriok egin du denborarik onena jardunaldiaren lehen txandan (10.43,34), eta sei segundoko aldearekin amaitu du Arraun Lagunak taldeak. "Joanaldi ona egin dugu, Oriorekin batera iritsi gara ziabogara, baina itzuleran, San Juan atzetik sartu da, eta horrek urduritu egin gaitu. Hor galdu ditugu segundokoak".

Hala ere, burua "hotz" mantendu eta estropada "ona" egitea lortu dute jardunaldiko lehen txandan:

"AURREIKUSITAKO HELBURUAK BETE DITUGU ETA POZIK EGOTEKO ARRAZOIAK DAUZKAGU"

"hobetu beharreko gauzak egon dira, baina espero genuen estropada egin dugu".

Bandera eskuratzeko aukera gehien dituen arraun taldea Orio bada ere, ezer ez da ezinezkoa, eta sei segundoko aldea gainditzen saiatuko dira Arraun Lagunak taldeko arraunlariak: "Bi edo hiru segundoko aldea izango bagenu, estuagoa izango litzateke neurketa, baina seiko alde horri ere aurre hartu dakioke, eta gu horretan saiatuko gara".

Irabazteko aukera ez dute baztertu nahi, baina garaipena

HONDARRIBIA BERTAKO IGOGAILUAK TALDEAK EZ DU ESPERO BEZALA AMAITU DENBORALDIA

eskuratu ezean, bigarren postuari eutsi nahi diote. Horretarako, estropada "txukuna" egitera itsasoratuko dira, baina "gozatzea" ere ezinbesteko izango dela iragarri du Belartietak.

Intza Fernandezek Hondarribiak, berriz, ez zuen gertatutakoa espero. Ohorezko txandarako sailkatzeko esperantzaz uretaratu ziren, baina lehen saioan izandako zailtasunak medio, bosgarren postuan sailkatu ziren: "Joaneko luze ona egin dugu, baina ziabogan ur korronteez kanpoaldera bota gaituzte eta egoera horri aurre hartzen galdu dugu denbora". Bueltako luzean, berriz, itsasoa aldeko izan dute, eta hortaz baliatu diren arren, urduritasuna nagusitu da taldean, eta ez dute denbora irabazterik lortu.

Halere, Donostiarraren aurretik sailkatzea lortu dute, eta "pozik" agertu da horrekin Fernandez: "Denboraldiko etsai nagusia izan da guretzat".

Berebiziko garrantzia du badiako hitzorduak Hondarribiarentzat ere: "Ligaz

kanpoko jardunaldia da, denboraldiari amaiera ematen diona, beraz, egindako lana ahalik eta modu onenean amaitzeko aukera ematen du".

Jakin badaki "edozer gauza" gerta litekeela, baina pasa den igandeko emaitzak ikusita, hirugarren edo laugarren postua borrokatuko dute. "Gure txanda irabazi nahi dugu, ahalik eta denbora tarte gehien atera gainerako traineruei, baina batez ere, Hibaikaren aurretik amaitzea, *play off*-ean aurkari izango baitugu".

Denboraldiko helburuak

Aurtengo denboraldirako finkatutako helburuak bete ditu Arraun Lagunak taldeak. Aurrendenboraldian Oriorekin segundo dezenteko aldearekin aritu dira, baina denboraldiko neurketetan, berriz, alde hori ez da handiegia izan. Lekeitioko norgehiagokan ere bandera eskuratu dute, eta, beraz, "pozik" egoteko arrazoiak badituzte.

Hondarribiari, berriz, zehaztutako zenbait helburuk ihes egin diote: "*Play off*-etik kanpo geratzea zen gure helburuetako bat, eta ezinezkoa izan da". Gauzak horrela, Kontxako Banderaren osteko asteburuan jokatu dute Euskotren Ligari eusteko kanporaketa; larunbatean, Bermeon eta igandean, berriz, Portugaleten. ETE Ligako Hibaika eta Zumaiaren aurka neurtu beharko ditu indarrak, Ama Guadalupekoak.



Realeko jokalariek, abuztu bukaeran irabazitako Euskal Herria Kopa ospatzen, Azpeitiako Garmendipe zelaian. REAL SOCIEDAD

Denboraldi-aurrean erakutsitakoa berrestera

Ilusioz eta sasoi betean ekingo dio Iberdrola Ligari Realak asteburu honetan. Etzi neurtuko ditu indarrak Valentziarekin, Paternako futbol zelaian, 18:00etatik aurrera. Prestaketa neurketetako dinamikarekin jarraitu nahi du: partida bakar bat ere ez dute galdu

Txintxarri

Denboraldi-aurre bikaina egin du Realak. Lau partida irabazi ditu, eta bi berdindu. Euskal Herria Kopako finalekoa izan da garaipenik garrantzitsua. Athleticen itzalpean urte dezente pasa ostean, txuri-urdinek erakutsi dute haien maila berean daudela gaur egun. 3-0 irabazi zieten.

Udan zehar erakutsitakoa berrestea dagokie orain. Ilusioz eta sasoi betean ekingo dio Iberdrola Ligari Gonzalo Arconadak entrenatutako taldeak. Etxetik kanpo jokatu du aurreneko partida, etzi, Paternako futbol zelaian, 18:00etan. Valentziarekin neurtuko ditu indarrak.

Pasa den denboraldian Erreginaren Kopa irabazi ostean, klubak indartu egin du Realaren proiektua. Merkatua ireki aurretik egin zuen aurreneko "fitxaketa". Nahikari Garcia aurrelariak 2021. urtera arte kontratua luzatuko zuela iragarri

zuen. Atzeko eta aurreko lerroak ere sendotu ditu talde txuri-urdinak. Ana Tejada, Lucia Rodriguez, Barbara Latorre eta Carla Bautista fitxatu ditu.

Aurpegi berri batzuk, eta ezagun asko. Horietako bat, Iraia Iparragirre herritarrarena. Eskuin zein ezker hegalean aritzen den defentsak bost denboraldi daramatza Realean. Gero eta pisu gehiago du aldagelan eta zelaian: Madrilen aurkako lagunartekoan kapitain izan zen.

Lau garaipen eta bi berdinketa

Aurrendenboraldi oso ona egin izanak ez du bermatzen ligan ere maila hori mantentzea, baina seinale ona izan ohi da. Oso ona. Sei partida jokatu ditu Realak

BOST DENBORALDI DARAMATZA TALDE TXURI-URDINEAN IRAIA IPARRAGIRRE HERRITARRAK

entrenamenduak hasi zituenetik. Balantzea, honakoa: lau irabazi ditu (Osasuna, Logroño, Athletic eta Madril) eta bi berdindu (Girondins eta Alaves). Dinamika horrekin jarraitu nahi dute.

Realaren liga hasiera

- **Valentzia-Real** Etzi, Paternan, 18:00etan.
- **Real-Levante** Irailak 15, igandea, Zubietan, 18:00.
- **Real-Betis** Irailak 22, igandea, Zubietan, 18:00.
- **Espanyol-Real** Irailak 28-29, Bartzelonan, ordua zehazteke.
- **Real-Athletic** Urriak 12-13, Zubietan (o.z.).

Maialen Chourraut, munduko txapelketa prestatzen

Zazpigarren postua lortu du herritarrak Munduko Kopako laugarren proban, Markkleeberg-en

Txintxarri

Gero eta gutxiago falta da munduko txapelketarako. Hitzordu garrantzitsua izango da hori Maialen Chourraut piraguistarentzat: Espainiako Federazioak bertan jokatu du datorren urteko udan Tokioko Joko Olinpikoetan aritzeko txartela. Herritarrak duela hiru urte Rio de Janeiron irabazitako urrea berriz kolporatzeko aukera eduki nahi du, eta, horregatik, badaki bere onena eman beharko duela Japonian egoteko.

Pasa den asteburuan Munduko Kopako laugarren proba jokatu zuen Markkleeberg hirian, Alemanian. Finalerdietan ederki aritu zen, eta hirugarren denbora onena eginda sailkatu zen final handira. Azken jaitsieran, ordea, ezin izan zuen erritmoa mantendu



Maialen Chourraut. LA LIGA SPORTS

eta podiumetik hiru segundora geratu zen. Ricarda Funk alemaniarra izan zen azkarrena. Jessica Fox australiarra eta Stefanie Horn izan ziren bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren.

Ironman erdiko munduko txapelketan ariko da Illarramendi

Andoni Illarramendi herritarrak erronka polita jokatu du etzi, irailak 8, Nizan (Frantzia). Ironman 70.3 modalitateko munduko txapelketan lehiatuko da: 1,9 kilometro igerian, 90 km. bizikletan eta 21,1 km. korrika. Guztira, 70,3 kilometro. Hortik hartzen du izena probak. Goizeko zazpitan ekingo dio lasterketari triatleta lasarteoriatar zailduak. Hegoafrikan jokatu zen munduko txapelketa iaz.

Ipar Martxan hasteko bi aukera, irailaren 14an eta 21ean

Gogotsu ekin dio ikasturte berriari Ostadar Ipar Martxak. Kide berriak kirol horretan murgiltzera animatzeko asmoz, hastapen ikastaro pare bat antolatu ditu. Irailaren 14an izango da lehenengoa, larunbata, 10:00etatik 13:00era. Bigarrena, irailaren 21ean; orduetgia ez da aldatuko. Bastoiak irakasleek eramango dituzte. Ostadarren bulegoan (Geltoki, 4) eman behar da izena, 18:00etatik 20:00etara.

Udako azken lasterketak

Igande honetan bukatuko da zaldi lasterketen udako denboraldia Hipodromoan. Donostia Saria izango da jardunaldiko proba garrantzitsua. 102 urte ditu lasterketa horrek.

Beste bost proba jokatu dira igandean. Horietako bat ponien txapelketako finala izango da. 11:25ean hasiko da aurreneko proba. Azkena, 13:55ean.



Zilarrezko saria Europako seven txapelketan

Alex Saleta gaztea abuztuan Polonian jokatu den errugbiko seven mailako Europako txapelketan lehiatu da. Espainiako selekzioak finala bakarrik galdu du Irlandaren aurka. Bestalde, Beltzak RTKko errugbi taldeek aurrendenboraldia hasiko dute

Txintxarri

Denboraldia era ezin hobean borobildu du Alex Saleta errugbi jokalaria, berriro ere, Europako txapelketa izan da. Apirilean, Errusian 18 urte azpiko mailako Europako txapelketan lortu zuen zilarra; abuztuan, 18 urte azpiko seven selekzioarekin ere lortu du balentria.

Abuztuaren 17 eta 18an jokatu zen Europako txapelketa Poloniako Gdansk hirian eta bertan izan zen Alex Saleta gaztea. Gorka Buenok zuzendutako taldeak maila handiko taldeak izan zituen aurrean eta finalera arte ez zuen partidarik galdu.

Lehen fasean, Belgika, Lituania eta Alemaniaren izan zituen arerio.

Lehen bi partidatan erraz nagusitu zen Espainia. Belgika 33-0 garaitu zuen eta 31-7ko markagailuarekin amaitu zen Lituaniaren aurkako partida. Alemaniaren aurka, berriz, gehiago borrokatu behar izan zuten garaipena, 19-14.

Emaiza horiei esker, C multzoko lehen postua eta final laurdenerako txartela ziurtatu zituen taldeak.

Finalerako bide ez zen erraza izan. Portugalen aurkako partidaren azken entsegura arte



Saleta zilarrezko dominarekin. A. VEGA

ez zen erabaki partida, 19-10. Final erdia ere, partida borrokatua izan zen. Georgiak azken minutuan 14-12koa jarri zuen markagailuan, baina Espainiako gazteek ez zuten etsi. Talde lan onari esker entsegua egin eta garaipena erdietsi zuten, 14-19.

Europako txapelketako final batean zen, berriro ere, Alex Saleta. Oraingoan, Irlandaren aurka jokatu zuen garaikurra Espainiako selekzioak. Lehen zatian, Gorka Buenoren gazteak nagusi izan ziren eta 7-12ko

markagailuarekin iritsi ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian, partida guztiz aldatu zen. Irlandarrak erasoan atera ziren, Espainiako taldeak utzitako tartek ongi baliatu eta hainbat entsegu lortu zituen markagailuan aurre hartzeko. Espainiako jokalariek ez zuten erasorik egiteko aukerarik izan eta 26-12 amaitu zen partida.

Alex Saletak partida guztietan jokatu zuen eta Lituania eta Georgiaren aurka lehen zazpikoan atera zen.

Denboraldi berria prestatzen

Egun, Saleta bera eta goi mailetako taldeetan lehiatzen diren herritarrak denboraldi-aurrean murgilduta daude.

Babyauto Zarautz Ohorezko B mailako taldeak hainbat lagunarteko jokatu ditu, Atletico San Sebastian taldearen aurka Iñaki Quesada oroimenezkoa edo Ondres eta Arcangues taldeen aurkako hiruko txapelketa, esate baterako.

Harrobia ere lanean hasiko da. Beltzak RTko 10 urte eta 14 urte azpiko taldeek, hau da, 2006 eta 2011 urteen artean jaiotako gazteek hitzordua dute gaur, ostirala, arratsaldeko 18:15ean, Michelin kirol gunean denboraldia prestatzen hasteko.



Leire eta Ainhoa Martin Espainiako txapelketako atsedenaldira. BURUNTZALDEA IKT

Abuztuko hitzorduetan ez dute hutsik egin igerilariek

Ainhoa Martinek lau domina lortu eta Euskadiko bi errekor hautsi zituen Espainiako txapelketan

Txintxarri

Ainhoa eta Leire Martin gazteak abuztuaren 3tik 7ra Terrassan izan dira Junior eta Absolutu mailako Espainiako Udako Txapelketa lehiatzen eta emaitza onak eskuratu dituzte.

Ainhoak lortu ditu emaitzarik onenak: urrezko domina, zilarrezko bi eta brontzezko bat eta Euskadiko bi errekor.

Ainhoa 400 metro lau estiloetan absolutu mailako Espainiako txapelketa berria da. "Finalean sekulako 4:57,44a egin zuen, lehen aldiz 5 minutuetatik jaitsiz, Euskadiko 16 urteko errekorra ondus," azaldu du Borja Apeztegia entrenatzaileak.

100 m. eta 200 m. bular probatan, junior finaletan izan da eta bietan bigarren postua erdietsi du bere markak hobetuz. 200 m. bular proban, gainera, Euskadiko 16 urteko errekorra hautsi du.

200 m. estilo proban lortu du Ainhoak azken domina, brontzezkoa.

Leire ere lau finaletan izan da. 400 metro lau estiloetako proban junior mailako finalean seigarren denbora onena egin du. Baina kanporaketan hobeto ibili da gaztea eta bere marka pertsonala ondu du, 5:02,19.

Saio berean, 100 m. bizkar probako finalerako sailkapena lortu du. "Logikoki, probari aurre egiteko modu onenean ez

bazegoen ere, bikain aritu da, bai kanporaketan eta baita finalean ere bere onenean arituz".

200 m. bizkar finalean 2:22,99 marka egin du, "aspaldiko partez berriro ere egitea lortu du". Azkenik, bere ahizparekin batera 200 m. estilo probako finalean izan zen.

Ahizpek egindako proba kopurua aipagarria da Buruntzaldea IKTKo entrenatzailearen hitzetan. "Biek parte hartutako proba bakoitzeko finaletan izatea lortu zuten, guztira lau probak bitan burutuz eta beti maila paregabe arituz. Leireren kasuan gainera, lehen egunean bi proba jarraian izanik".

Itsasoan ere lehen postuetan

Ur handietako probetan ere ederki moldatu dira Buruntzaldea IKTKo igerilariek.

Nora Imazek Paseo Berriko Itsas zeharkaldia irabazi zuen eta Laura Igea seigarren izan zen.

Nahia Zudairek, berriz, Mediterraneoko uretan lortu zuen garaipena. Gandiako 2.700 metroko zeharkaldian lehenengo izan zen eta 850 metroko proban, hirugarren.

Astelehena, irailaren 9tik aurrera Zudaire Munduko txapelketan lehiatu izango da, Londresen.

Judo saioak hastear

LOKEko judoek astelehenean, irailaren 9an hasiko dituzte entrenamenduak. 7 eta 10 urte arteko gaztetxoek, astelehen eta ostiraletan 18:30etik 19:30era izango dituzten saioak; 11 urtetik gorakoek, berriz, astelehen, asteazken eta ostiraletan 19:30etik 21:00etara. Bestalde, Gorka Aristegi entrenatzaileak judoka hoberenak lehiatu ikusi ahal izan ditu, abuztuan, Japonian jokatu den Munduko txapelketan.



G. ARISTEGI


KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Haritz
Zorionak Haritz!! Muxu poto-lo-poto bat zure 6. urtebetetzearen familiaren partetik!




Malen
Zorionak printzesa zure lehenengo urtebetetzean. Muxu poto-lo bat zure familiaren partetik.



Araia
Zorionak bihotza! Zure egunean ondo pasa izane espero dugu. 5 muxu goxo aiatxo eta amatxoren partetik! Urte askotarako!



Jose eta Fidela
Zorionak 50 urte hauengatik!!! Hurrengo urteetan hain harro egoten jarrai dezazuela!! Mila muxu familia osoaren partetik



Unai
Iragana joan zen. Geroa ez da oraindik iritsi. Beraz, orainaz disfrutatu.



Iker
Zorionak, Iker! Egun oso ona pasa! 15 muxu zure gurasoen eta arreba Saioaren partetik.



Uxue
Zorionak sorgina! Ikaragarri Maite zaitugu!!



Maren
Zorionak Maren! Egun polita pasa dezazula, Printzesa! Muxu haundi bat aiatxo, amatxo eta Enekoren partetik!



Uxue
Zorionak Uxue zure 9. urtebetetzean!

HILDAKOAK

Guadalupe Gascón Hernández. Irailaren 4an.
Pilar Unanue Lecuona. Irailaren 3an.
Gerardo Sanchez Garcia. Irailaren 2an.
Maria Jesus Ganzarain Jauregui. Abuztuaren 29an.
Asintxo Irazusta Alkain. Abuztuaren 29an.
Laura Munduate Arruti. Abuztuaren 26an.
Juan Antonio Illarreta Larrañaga. Abuztuaren 25ean.
Jose Rodriguez Perez. Abuztuaren 20an.
Florencio Pascual Martinez. Abuztuaren 19an.
M^a Ascension Prado Subiza. Abuztuaren 19an.
Celso Orbegozo Garro. Abuztuaren 16an.
Javier Martin Muguera. Abuztuaren 15ean.
Rafaela Rodrigo Ramos. Abuztuaren 10an.
Evaristo Pikabea Sarasola. Abuztuaren 6an.
Rosa Pedrosa Villalain. Abuztuaren 5ean.
Lorenzo Iraola Bengoetxea. Abuztuaren 4an.
Jose Jauregui Ecnarro. Uztailaren 31n.
Francisco Arteaga Yeregui. Uztailaren 29an.
Angel Ipintza Elola. Uztailaren 27an.
Begoña Salegui Salegui. Uztailaren 26an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 06 DE MIGUEL

Larunbata, 07 ORUE

Igandea, 08 ORUE

Astelehena, 09 LASA

Asteartea, 10 GIL

Asteazkena, 11 ACHA-ORBEA

Osteguna, 12 URBISTONDO

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52

ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49

DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51

LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74

GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29

URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67

GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDUEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:


OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZAK: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

JAIOTAKOAK


Mauro Marcos Merayo. Abuztuaren 22an.
Sebastian Rojas Tapia. Abuztuaren 22an.
Sandra Alvarez Diaz. Abuztuaren 20an.
Irama Ibarburu Zumeta. Abuztuaren 15ean.
Carlota Sousa Rebelo. Abuztuaren 8an.
Oihane Sanchez Montes. Abuztuaren 4an.
Enzo Emiliano Diaz Baez. Abuztuaren 4an.
Enzo Carnim Benavides. Abuztuaren 3an.
Aratz Arteaga Monasterio. Uztailaren 30an.
Nora Juarez Vilchez. Uztailaren 30an.
Rodaina El Hamri El Ghzaoui. Uztailaren 28an.
Gala Rejas Miranda. Uztailaren 24an.
Dilan Abdiel Mejia Ponce. Uztailaren 22an.
Kristel Valentina Hernandez Zelaya. Uztailaren 30an.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 06




Larunbata, 07




Igandea, 08




Astelehena, 09




Asteartea, 10



Asteazkena, 11



Osteguna, 12





ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Logela bakarreko apartamentua alokatzen dut, Iñigo de Loiola kalean. 616 164 823.

Logela bat alokatzen dugu partekatutako etxe batean, Lasarte-Oria erdialdean. Bi neska bizi gara bertan, eta hirugarrenaren bila gabiltza. 250 euro eta gastuak. 666 320 520

LANA

ESKAINITZA

Zerbitzaria behar da Lasarte-Oriako taberna baterako. Interesatuak deitu: 607110365.

Zerbitzaria behar da Zubietako Barazar landetxean, asteburuetan lan egiteko. 943 363 358.

ESKARIA

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta ebeko lanak

egiteko. Interna edo externa bezala. 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. 606 661 048.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta Beñat Lizaso.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexu Artebe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaleak

Ioar Gáinza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Kultur Kale Zikloa. Abuztuko etenaldiaren ostean, Kultur Kale Zikloko hitzordu berria izango da. Oraingoan Zabaleta auzoko herritarrek Mikel Karton bakarlariaren doinuez gozatu ahalko dute. Larunbata, Zabaleta auzoa, 20:00etan.



LASARTE-ORIA Stock azoka. Aterpea Merkataria eta Ostalarien elkarteko bederatzi dendatan antolatuta da azoka. Imagine jantzi denda, Electricidad Arregui, Artesania Ines Flores, Dulce Tentacion, Iturbe Oinetakoak, Leder Oinetakoak, Olmi Mertzzeria, Mabel Moda eta Alba Moda komertzioek eskaintza bereziak izango dituzte. Gaur eta bihar, Aterpeako dendak.

OSTIRALA 6

LASARTE-ORIA Stock azoka
Aterpea Merkataria elkarteko hainbat dendatan merkealdi bereziak izango dira.
Aterpeako dendak, egun osoa.

LASARTE-ORIA Kontzertua
Autumn bakarlari donostiarrak, kontzertua emango du. Ahots eta gitara doinuekin girotuko du iluntzea.
Atotxa taberna, 20:00ean.

HERNANI Kontzertua
Benito Lertxundiren emanaldiaz gozatu ahalko da. *Ospakizun gauetan*, bere hurrengo diskoko kantak eskainiko ditu. Sarrerak agortuta.
Udal kiroldegia, 22:00etan.

LARUNBATA 7

LASARTE-ORIA Stock azoka
Aterpea Merkataria elkarteko hainbat dendatan merkealdi bereziak izango dira.
Aterpeako dendak, egun osoa.

LASARTE-ORIA Kontzertua
Mikel Karton bakarlariak kontzertua eskainiko du Kultur Kale zikloari jarraipena emanaz.
Zabaleta auzoa, 20:00etan.

HERNANI Hitzaldia
Landare eta loreen kontsulta aurrez aurre, baratetik platerera sortzen dugun paisaia jardunaldia egingo da. Jakoba Errekondoren Bizi Baratzea

liburua eta eskualdean abian diren lau proiektu oso berezi aurkeztuko dira hasieran, eta ondoren landareen eta loreen aurrez aurreko kontsultategia eskainiko dute Jakoba Errekondok eta Iñigo Segurok.
Orona Ideo, 11:00etan.

ANDOAIN Jaiak
Sorabilla auzoko jaiak hasiera emango zaiei:
18:00etan, txupinazoa, suziarik eta kanpai errepika.
18:00etan, ate ireki jardunaldia, Erretore Etxean.
18:00etan, Iturzaeta Memorialeko palako bi finalen errebantxak:

Garbiñe-Aloña / Itsasne-Irati
Loidi I-Loidi II / Koldo-Xabier
20:30etan, Zikiro afaria. Zozketa ugari partaideen artean
Ondoren, dantzaldia Los Rubi taldearekin
02:00etan, Txokolatea eta bizkotxoak.

Sorabilla auzoa, 18:00etatik aurrera.

IGANDEA 8

ANDOAIN Jaiak
Sorabilla auzoko jaiak bigarren eguna ospatuko da:
11:30etan, Meza Alberto Agirre abesbatzarekin, Martin Deunaren eliza.
Ondoren, auzokide helduentzat hamaiketako
17:00etan, Trikitilariak, Eider eta Lierni Tolosa ahizpak.
17:30etan, Andoingo auzoen arteko herri kirolak: Buruntza,

Etxeberrieta, Goiburu, Santa Krutz eta Sorabilla. Ligaren amaiera.
18:30ean, sagardo dastaketa kantu-jirako abeslarien laguntzaz.
22:00etan, festa amaiera.
Sorabilla auzoa, egun osoa..

DONOSTIA Giza katea
Erraustegiaren aurkako giza katea antolatuta du Erraustetaren Aurkako Mugimendua.
Kontxako hondartza, 11:30ean.

OSTIRALA 13

LASARTE-ORIA Jaiak
Ama Guadalupekoaren omenezko jaiak hasiera emango zaie:
18:00etan, txosnaren irekiera, Jaizkibel plazan.
19:00etan, Oaintxe in deu txaranga Sasotako kaleetatik.
21:00etan, bandera igoera, Extremadura etxean.
21:15ean, Extremadurako eltzekaria, Extremadura etxea.
23:00etan, Hermanos Aguirre taldearen emanaldia, Jaizkibel plaza.
01:00etan, Extremadurako migak.
Extremadura etxea, 18:00etatik aurrera.

LARUNBATA 14

LASARTE-ORIA Jaiak
Ama Guadalupekoaren omenezko jaiak bigarren eguna ospatuko dute:
10:30etan, pintura lehiaketa, 2kn okindegi-kafetegian.

ZINEMA

USURBIL	Chicos buenos	Larunbata: 15:50, 22:35.	Objetivo: Washington D.C.
URBIL	Ostirala: 22:50, 00:55.	Igandea: 15:50, 22:35.	Ostirala: 20:30, 23:00.
It Capitulo 2	Larunbata: 22:50, 00:55.	Historias de miedo para contar en la oscuridad	Larunbata: 20:30, 23:00.
Ostirala: 15:45, 16:30, 18:00, 19:05, 20:00, 21:30, 22:30, 23:30.	Igandea: 22:50.	Ostirala: 22:40, 00:55.	Igandea: 20:30, 23:00.
Larunbata: 15:45, 16:30, 18:00, 19:05, 20:00, 21:30, 22:30, 23:30.	Dora y la ciudad perdida	Larunbata: 22:40, 00:55.	Padre no hay más que uno
Igandea: 15:45, 16:30, 18:00, 19:05, 20:00, 21:30, 22:30.	Ostirala: 16:00, 18:15.	Igandea: 22:40.	Ostirala: 18:10, 20:30.
Érase una vez en... Hollywood	Larunbata: 16:00, 18:15.	Infierno bajo el agua	Larunbata: 18:10, 20:30.
Ostirala: 15:45, 19:00, 22:15.	Igandea: 16:00, 18:15.	Ostirala: 20:55.	Igandea: 18:10, 20:30.
Larunbata: 15:45, 19:00, 22:15.	El Rey León	Larunbata: 20:55, 01:00.	Angry birds 2: la película
Igandea: 15:45, 19:00, 22:15.	Ostirala: 18:25, 20:20.	Igandea: 20:55.	Ostirala: 16:15.
	Larunbata: 18:25, 20:20.	Mascotas 2	Larunbata: 16:15.
	Igandea: 18:25, 20:20.	Ostirala: 16:30, 18:30.	Igandea: 16:15.
	Quien a hierro mata	Larunbata: 16:30, 18:30.	Playmobil: la película
	Ostirala: 15:50, 22:35, 01:00.	Igandea: 16:30, 18:30.	Ostirala: 15:50.
			Larunbata: 15:50.
			Igandea: 15:50.

11:30etan, haur-jolas eta tailerrak, Jaizkibel plaza.
12:00etan, extremadur meza Botes de Encina taldeak lagunduta, Extremadura etxea.
14:00etan, paella jana, Jaizkibel plaza.
17:00etan, Txokolatada haurrentzat.
19:00etan, Nafarroako extremadur etxeko Botes koru eta dantza taldearen emanaldia, Jaizkibel plaza.
21:00etan, bazkideen afari ofiziala, Extremadura etxea.
23:00etan, Dantzaldia Trio Imperial taldearen eskutik, Jaizkibel plaza.
Extremadura etxea, egun osoa.

IGANDEA 15

LASARTE-ORIA Jaiak
Ama Guadalupekoaren omenezko jaiak azken eguneko egitaraua:
12:00etan, Duende, Gitanillas eta Zambra andaluziar dantza taldeen emanaldia, Jaizkibel plaza.
14:30etan, Extremadurako arkumeki-gisatua.
18:00etan, 18 urtetik gorakoentzat bola-joko txapelketa.
20:00etan, jaien amaiera eta bandera jaistea.
Extremadura etxea, egun osoan zehar.



Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkideen artean!

Haurrekin **ESKULANAK** egiteko gida + **BIZI-BIRZI** mahai jolasa + **STORY CUBES**

Parte hartu nahi baduzu, eman izena IRAILAREN 22a baino lehen: harpidetza@ttakun.eus helbidean, bulegoan, 943 37 14 48 zenbakira deituta eta 646. 82 44 66 (whatsapp)



Bazkidetza informazioa

EPA LASARTE HHI 2019-2020 ikasturtea

Ordutegia:
10:00-13:00 eta
17:00-19:00
(anbulategi gainean)

MATRIKULA EPEA ZABALIK

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...).
- **Bigarren Hezkuntza** (DBHko tituluak lortzeko moduluak).
- **Gaztelania atzerritarrentzat.**
- **EUSKARA (0-1-2 mailak).**



Tel. 943 37 64 43 / 943 36 66 08 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarte.eus

2019-2020 ikasturtea UDAL EUSKALTEGIAN

A1, A2 edo B1 (1HE)eko tituluak euskaltegian bertan lortzen dira. B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.

IKASTAROAREN IRAUPENA: IRAILAREN 19TIK EKAINAREN 18RA

- Astelehenetik ostegunera. Astean 10 ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan.
- Hiru ordutegi aukeran: 9:00etik 11:30era; 15:00etik 17:30era eta 18:30etik 21:00era.
- On-line (BOGA).
- 16 urtetik gorakoentzat.

MATRIKULA ZABALIK
IRAILAREN 18RA ARTE



DIRU-LAGUNTZAK BADAUDE.
GALDETU BALDINTZAK

Lasarte-Oriako UDAL EUSKALTEGIA (Bekokale bidea, 1) Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00

kon2natu

erreflexuen aurkako graduatuak
+ eguzkitako graduatuak

99€

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS
lehenaz zerbitzu optikoetan

www.multiopicasgipuzkoa.com